

Udalbatza Osoaren eskumenak

Herritarren politika-ordezkaritzako organo gorena, biztanle askoko udalerrietako udal-gobernuan. Zinegotzi guztiak osatzen dute, eta alkatea du buru. Udalbatza Osoaren eskumenak honakoak dira (apirilaren 2ko 7/1985 Legeko, 22. artikulua):

1. Osoko bilkura zinegotzi guztiak osatzen dute, eta alkatea du buru.
2. Hauek dira, nolani ere, osoko bilkurari dagozkion eskumenak:
 - a) Gobernu-organoak kontrolatzea eta ikuskatzea.
 - b) Udalerriaz gaindiko antolakundeetan parte hartzeari buruzko erabakiak hartzea; udal-mugartea aldatzea; udalerriak eta 45. artikuluan aipatutako erakundeak sortzea edo ezabatzea; deskontzentratutako organoak sortzea; udalerriburua aldatzea eta udalerraren edo erakunde horien izena aldatzea, eta bertako bandera, ikurra edo armarrria onartzea edo aldatzea.
 - c) Plangintza orokorrari hasierako onarpena ematea, eta hirigintza-leggedian aurreikusitako antolamenduko planen eta gainerako tresnen gaineko udal-izapideen amaiera onartzea.
 - d) Erregelamendu organikoa eta ordenantzak onartzea.
 - e) Tributu-izaerako baliabide propioak zehaztea; aurrekontuak onartzea eta aldatzea; eta udalaren eskumeneko gaitan gastuak xedatzea eta kontuak onartzea. Hori guztia Toki-ogasunak arautzen dituen Legean xedatutakoarekin bat etorritik.
 - f) Zerbitzuak kudeatzeko moduak eta udalekotzeespedienteak onartzea.
 - g) Beste herri-administrazio batzuek eskuordetzan emandako eskumenak onartzea.
 - h) Beste toki-erakunde batzuei eta gainerako herri-administrazioei eskumen-gatazkak jartzea.
 - i) Langileen plantilla eta lanpostuen zerrenda onartzea; eta funtzionarioen ordainsari osagarri finko eta aldikako zenbatekoa eta behin-behineko langileen kopurua eta araubidea finkatzea.
 - j) Akzio judizialak eta administratiboak baliatzea eta udalbatzaren defentsa egitea osoko bilkuraren eskumeneko gaitan.
 - k) Udalaren egintzak kaltegarritzat jotzea.
 - l) Jabari publikoko ondasunen kalifikazio juridikoa aldatzea.
 - m) Kreditu-eragiketak ituntzea, baldin eta ekonomia ekitaldi bakoitzean metatutako zenbatekoak aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10a gainditzen badu, diruzaintzako eragiketak salbuespentzat hartuta, horiek une bakoitzean bizirik dauden eragiketen zenbateko metatuak aurreko ekitaldian kitatutako sarrera arrunten 100eko 15a gainditzen duenean baitagozkio. Hori guztia Tokiogasunak arautzen dituen Legean xedatutakoaren arabera.
 - n) **(indargabetua)**.
 - ñ) Obra-proiektuak eta zerbitzu-proiektuak onartzea horiek kontratatu edo horien emakida egiteko eskumenak baditu eta proiektuok aurrekontuetan oraindik aurreikusi gabe badaude.
 - o) **(indargabetua)**.
 - p) Onartuak izateko gehiengo berezia behar dutelako, osoko bilkurari dagozkion gainerako eskumenak.
 - q) Legeek berriaz emandako gainerakoak.
3. Era berean, osoko bilkurari dagokio alkateari ezar liezaiokeen zentsura-mozioari buruzko eta alkateak berak jarritako konfiantza-galdekizunari buruzko bozketak egitea; bozketak publikoak izango dira, eta kasu guztietan bakoitzari izenetik deituta egingo dira. Horiek hauteskunde-leggedi orokorrean ezarritakoarekin arautzen dira.
4. Osoko bilkurak alkateari eta tokiko gobernubatzarrari eman diezazkieke bere eskumenak eskuordetzan; baina, salbuespen dira artikuluko honetako 2. paragrafoko a), b), c), d), e), f), g), h), i), l) eta p) idatz-zatietan eta 3. paragrafoan zehaztutakoak.